

Obra-lizentzia tramitatzeko behar diren agiriak Eraisketa (DE)

OINARRIZKO DOKUMENTAZIOA

| | | |
|-----|--|--|
| | <ul style="list-style-type: none"> ▸ Gauzatze-proiektua: ikus-onetsia | |
| | <ul style="list-style-type: none"> ▸ Prozeduran aritzeko ordezkari-tza egiaztatzen duen ahalordea. | |
| (1) | <ul style="list-style-type: none"> ▸ Lan topografikoa.- Lerrokaduren eta Sestren Zuinketa Akta lortzeko ezarri diren nahitaezko agiriak aurkeztu behar dira, dwg formatuan. Nahitaezko agiri horiek hemen ageri dira: Lerrokadura, Sestra, Zuinketa Akta eta Obra Amaierako Planoei buruzko Udal Ordenantzaren 4. artikuluan (1999ko azaroaren 12ko ALHAO (133. zk.) eta geroko aldakuntzetan —2002-10-23ko ALHAOn (121. zk.), 2004-12-01eko ALHAO (139. zk.) eta 2009-05-15eko ALHAO (55. zk.). | |
| | <ul style="list-style-type: none"> ▸ Segurtasun eta Osasunari buruzko azterlana / Segurtasun eta Osasunari buruzko Oinarrizko azterlana aurkeztu behar da, eraikuntza-obretako segurtasunaren eta osasunaren arloko gutxieneko xedapenak finkatzen dituen urriaren 24ko 1.627/1997 Errege Dekretuaren eta hori aldatzen duen obretako prebentzio-bitartekoei buruzko maiatzaren 19ko 604/2006 Errege Dekretuaren arabera. | |
| | <ul style="list-style-type: none"> ▸ Obran zehar sortuko diren eraikuntzako eta eraispentako hondakinen eta materialen kudeaketari buruzko azterlana; azterlan hori pertsona eskudun batek sinatu beharko du, eta dagokion elkargo profesionalaren oniritzia jaso behar du, horrela aurreikusten delako eraikuntza- eta eraispent-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren 4.1 a) artikuluan. | |
| | <ul style="list-style-type: none"> ▸ Obra-zuzendaritzaren enkargu-orria | |

(1) *Munta txikiko obretan **EZ** da behar.*

DOKUMENTAZIO OSAGARRIA (partzelaren edo eraikinaren eraginen arabera)

| | | |
|--|--|--|
| | <ul style="list-style-type: none"> ▸ Egin beharreko lanek balizko arkeologia-eremu bati eragiten badiote, Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak emandako baimena aurkeztu beharko da. | |
| | <ul style="list-style-type: none"> ▸ Lurzorua kutsa dezakeen jardueraren bat izan dute eraikinak edo instalazioak eraisten badira, azterlan gehigarri bat aurkeztu beharko da, bai eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzaren txostena azterlan gehigarri hori nahikoa dela argitzeko, eraikuntza- eta eraispent-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren 4.1 b) artikuluekin bat. | |

| DOKUMENTAZIO TEKNIKOA | |
|------------------------------|---|
| Memoria | › Agenteak |
| | › Aurretiatzko informazioa: Egungo egoera erakusten duten argazkiak aurkeztea. |
| | › Eraispenaren deskribapena |
| | › Elementu artistikoak edo kulturalak eraikinean – Halakorik balego, memoria deskribatzaile bat eta elementuen argazkiak aurkeztu beharko dituzte. |
| | › Hirigintza justifikazioa |
| | › Eraikitako azalaren koadroa |
| | › Obra gauzatzeko epea adieraztea |
| Dokumentazio grafikoa | › Kokagunearen planoak |
| | › Kokatze-planoak: Hirigintza-justifikazioa, lerrokadurak, atzeraemanguneak... |
| | › Solairu orokorren planoak: (*) Kotatuak eta erabilerakoak. |
| | › Altxaerak eta sekzioak: (*) Kotatuak; adierazi egin behar dira solairuen altuera-kotak, forjatuen lodierak eta guztizko altuerak. |
| | › Estalkiaren planoak (*) |
| Aurrekontua | › Neurketak eta aurrekontua |

(*) Arrazoi justifikatuak (norbera arriskuan izatea datuak hartzean, erortzeko arrisku handia...) direla eta egoki ez denean izan ezik. Kasu horretan eraikuntza-dosierreko planoak aurkeztu behar dira.